

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 10/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, onartzen duena zerga egoitzaren aitortpen eredia, kasu jakin batzuetan ez-egoiliarren izaera egiaztatze aldera

Uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, identifikazio fiskalaren zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituenak, identifikazio fiskalaren zenbakia jakinarazteko betebeharraren salbuespen batzuk xedatzen ditu 12. artikuluko 2., 7. eta 8. idatzi zatietan. Ez-egoiliarren izaera egiaztatzeko, foru dekretu horren 12. artikuluko 9. idatz zatia xedatzen du izaera hori kasuan kasuko erakundearen egiaztatu daitekeela honakoak aurkeztuta: zerga egoitzaren egiaztatzea, zerga alorreko agintariek luzatua, edo, bestela, zerga egoitzaren aitortpena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak onartzen duen ereduaren eta baldintzen arabera.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 26ko 445/2012 foru aginduak zerga egoitzaren aitortpen eredia onartu zuen.

Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundeak (ELGE), informazio trukeko prozeduren nazioarteko erakunde sustatzailea den aldetik, informazio truke automatikoari eskainitako internet atarian argitaratuta ditu zerga egoitzaren aitortpenerako inprimaki eredu batzuk, herrialde bakoitzaren barne araudira egokitzekoak, CRS-finantza kontuen informazioa automatikoki trukatzeko sistema komun eta estandarizatua aplikatzeko oinarritzat erabil daitezkeenak. Bada, prozedurak errazte aldera, inprimaki horiek ere baliagarritzat hartuko dira aurreko idatz zatietan aipatutako ondorioetarako, beti ere, honako baldintza hauek betetzen badituzte: edukitzea azaroaren 13ko 1.021/2015 Errege Dekretuak (dekretu horrek bi betebeharrak ezartzen ditu elkarren laguntzaren esparruan: batetik, finantza kontu jakin batzuk dauzkaten edo kontrolatzen dituzten pertsonen zerga egoitza identifikatu beharra; bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra) bere eranskinaren I. atalaren 2. idatz zatian xedatutakoa, eta interesdunak aitortutako artean adierazita egotea kontua ez dela lurralde espainiarreko establezimendu iraunkor batena. Era berean, errazteko xede berarekin, baliagarriak izango dira finantza erakundeek beraiek horretarako egin dituzten bestelako eredu batzuk ere, baldin eta, lehen adierazitakoak jasota badituzte.

Aurrekoarekin bat etorriz, foru agindu honen helburua da malguago egitea egiaztatzea, batetik, ez-egoiliar izaera, Espainian establezimendu iraunkorrik izan gabe, eta, bestetik, beste herrialde bateko zerga egoitza, egoiliarrek kreditu erakundeekin izan dituzten eragiketetan zerga identifikazioaren zenbakia jakinarazteko betebeharretik salbuesteko. Horretarako, indargabetu egiten da aipatutako ekainaren 26ko 445/2012 Agindua, eta zerga egoitzaren aitortpen eredu berri bat onartzen da, aurreko idatz zatian ez-egoiliar izaera egiaztatzeko aipatu diren bideak kontuan hartzeaz gain.

Gainera, ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 14.1.e) artikuluan aipatzen dituen kontuen titularrek, bai foru agindu honen bidez onartzen den eredia, bai izaera egiaztatzeko beste bide bide edo modu hauek, erabili ahal izango dituzte ez-egoiliar izaera egiaztatzeko. Izan ere, 14.1) artikuluko horrek ezartzen du Espainiako Bankuak edo kanpoarekiko transakzio ekonomikoetarako arauak aipatutako erakunde erregistratuek zerga horregatik zergadunei ordaindutako ez-egoiliarren kontuen etekinen salbuespena. Horrela, abenduaren 16ko 712/2002 Foru Aginduaren xedapen gehigarri bakarrean hala xedatuta orain arte erabili den ereduaren ordezkari foru agindu honetan onartzen dena erabiliko da.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zerga egoitzaren aitortpena

1. Agindu honen eranskinean jasotako zerga egoitzaren aitortpen eredu onartzen da, hain zuzen ere, identifikazio fiskalaren zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak 12. artikuluko 9. paragrafoan aipatzen duena. Eredu hori erabiliko da kasuan kasuko erakundearen aurrean egiaztatzeke ez-egoiliarren izaera, aipatutako 12. artikuluen 2., 7. eta 8. idatz zatietan aurreikusitako ondorioetarako.

Horrez gain, aplikatzeko ez-egoiliarren kontuen etekinei dagokien atxikipen beharretik salbuespena, ekainaren 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 14.1.e) artikuluan aipatutakoa, 21/2014 Foru Arau horren 5. artikuluan definitutako zergapeko ez-egoiliarrek, Espainiako Bankuak eta kanpoarekiko transakzio ekonomikoetarako arauak dioten erakunde erregistratuak ez-egoiliarren kontuengatik ordaintzen dituzten etekinak direla eta, establezimendu iraunkorrik gabe ez-egoiliarren errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden errentak lortzen badituzte, idatz zati honetan aipatzen den aitortpena aurkeztuta egiaztatu dezakete erakunde horien aurrean ez-egoiliarren izaera.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den zerga egoitzaren aitortpenek foru agindu honen eranskinean jasotzen den ereduari jarraituko diote.

Era berean, idatz zati honetan aipatu diren aitortpen ereduak kasuan kasuko erakundeei lehendik aitortutako edozein egoera aldatu dela jakinarazteko erabiliko dira.

3. Aitortpen egileak kasuan kasuko zerga egoitzaren aurrean aurkeztuko ditu aitortpen horiek, honako epe hauetan:

a) Kreditu erakundeekin egindako eragiketetan identifikazio fiskalaren zenbakia jakinarazteko salbuespena aplikatzeko aurkeztu diren aitortpenak: kasuan kasuko eragiketa egiten denean. Aktibo, pasibo edo balore kontu bat irekitzearen kasuan: hilabete, kontua irekitzen denetik aurrera.

b) Ez-egoiliarren kontuen etekinetan atxikipena egiteko betebeharretik salbuespena egitea aplikatzeko aurkeztu diren aitortpenak: hilabete, kontua irekitzen denetik.

4. Aipatutako aitortpenen balio epea mugagabea izango da, aitortutako egoeretako batean aldaketaren bat gertatzen denean izan ezik. Kasu horietan aldaketa horren berri emango zaio dagokion erakundeari. Jakinarazpen hori egiten denetik aitortpenak ez du baliorik izango.

5. 1. idatz zatian aipatzen diren erakundeek zerga administrazioaren esku izango dituzte, paperean edo euskarri informatikoan, aipatutako aitortpenak eta aitortpen horien euskarri diren agiriak, otsailaren 28 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 65. artikuluan aipatzen duen iraungitze epeak irauten duen bitartean.

6. Aurrekoa alde batera utzita, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapeko izaera dagokion erakundearen aurrean egiaztatzeke, egoitza duten herrialdeko zerga alorreko agintariek luza-tutako egiaztagiaren bitartez egin ahal izango da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Foru Agindu honetako artikulu bakarraren 1. idatz zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako, hauek ere baliozkoak izango dira: Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA), bere Internet atarian, CRS-finantza kontuen informazioa automatikoki trukatzeko sistema komun eta estandarizaturako azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinaren I. atalaren 2. paragrafoan xedatutakoak jasotzeko ezinbesteko egokitzapenekin argitaratutako zerga egoitzaren inprimakiak erabiliz egindako aitortpena eta adierazpen eta betekizun horiek jasotzeko finantza erakundeek berek egindako ereduak erabiliz egindako aitortpena. 1021/2015

Errege Dekretuak honakoak xedatzen ditu: zenbait finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko beharra, elkarren laguntzarako eremuan haien berri emateko beharra eta kontua ez dagokiola Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati berariaz adierazteko beharra.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetu egingo da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren ekainaren 26ko 445/2012 Foru Agindua, onartzen duena kreditu erakundeekin egiten diren eragiketetan identifikazio fiskalaren zenbakia jakinaraztetik salbuesteko baliatuko den zerga egoitzaren aitorten erredua.

AZKEN XEDAPENAK

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 18a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	Egoitza fiskalaren adierazpena	RF
--	--------------------------------	----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila **Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

Adierazpen mota:		Alta <input type="checkbox"/>	Aldaketa <input type="checkbox"/>
IFZ	Bizilekua duen herrialdearen identifikazio fiskaleko zk.	Pasaportearen edo agiri baliokidearen zk.	
Deiturak eta izena edo sozietatearen izena			
Jaiotza data	Hiria	Herrialdea edo lurraldea	Jaiotzerria
		Herrialdearen kodea	Nazionalitatea
ATZERRIKO HELBIDEA			
Helbidea			
Udalerrria		Posta kodea (ZIP)	Probintzia / Eskualdea / Estaturia
Herrialdea	Herrialdearen kodea	Telefonoa	Faxa E-maila
ESPAINIA LURRALDEKO HELBIDEA			
Helbidea			Etxe zk. Letra Solairua Aldea
Udalerrria		Posta kodea	Probintzia edo LH
Telefonoa	Faxa	E-maila	
EGOITZA FISKALAREN HERRIALDEA EDO LURRALDEA			HERRIALDE EDO LURRALDEAREN KODEA

ADIERAZPENA

Behean izenpetzen duenak hau adierazten du bere erantzukizunpean:

- Goian adierazitako herrialdean edo lurraldean duela zerga egoitza.
- Kontua ez dagokiola Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati (kontuei gogozkiela, uztailaren 8ko 71/2008 FDren 12.7 artikulua)

Adierazpen hau ondokoa aplikatzeko aurkezten da (idatzi "X" dagokionean):

- **Kreditu erakundeekin egindako eragiketetan IFZ jakinarazi beharretik salbuetsita geratzeko (uztailaren 8ko 71/2008 FDren 12.9 artikulua) Salbuetsita geratzeko arrazoiak:**
 - 3.000 euro baino gutxiago trukatea dibisatan edo erostea bidaia txeketan (71/2008 FDren 12.2 art.)
 - Aktibo, pasibo edo balio kontuak (71/2008 FDren 12.7 art.)
 - Txeke hartzaileak edo edukitzaileak (71/2008 FDren 12.8 art.)
- **Ez-egoiliarren kontuen etekinak direla-eta atxikitzeko betebeharretik salbuestea (21/2014 FAre, EEEZrenaren, 14.1.e art.)**

Adierazpen hau aurkezten da identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osara arautzen dituen 71/2008 Foru Dekretuak 12. artikulua 2., 7. eta 8. paragrafoetan aipatzen dituen egoeretan xedatutakoaren ondorioetarako, artikulua horren beraren 9. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, eta indarra izango du bakarrik ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, 14.1.e artikuluan aipatutako ez-egoiliarren kontuen etekinak direla-eta; hau da, ez du salbuesten Espainiako zerga araudiaren ondorio diren gainerako betebeharretatik.

Adierazpena, elkarren laguntzaren eremuko finantza kontuen berri eman beharren ondorioetarako (abenduaren 23ko 111/2008 FDren 2.bis artikulua). Era berean, adierazpen hau aurkezten da finantza erakundeak bere egoitza edo, hala behar izanez gero, nazionalitatea identifikatzeko betebeharrak duelako (abenduaren 23ko 111/2008 FDren 2.bis artikulua). Behean izenpetzen duenak hau adierazten du bere erantzukizunpean: adierazpen hau osoa dela nazionalitateari eta zerga egoitzari dagokien eta, beraz, egoitza fiskala dituen zerga jurisdikzio edo herrialde guztiak jasotzen dituela. Ondorioz, adierazpen egileak zerga egoitza herrialde edo zerga jurisdikzio bi edo gehiagotan baditu, identifikazio datuen sailean agertzen ez diren guztiak jakinarazi beharko ditu ondoren (nola egoitzaren herrialdea edo zerga jurisdikzioa hala hartan duen identifikazio fiskaleko zenbakia).

Identifikazio fiskaleko zk.	Herrialdea edo zerga jurisdikzioa	Kodea
-----------------------------	-----------------------------------	-------

Identifikazio datuen sailean Ameriketako Estatu Batuetako naziotasuna dutela adierazi ez duten adierazpen egileentzat baino ez: adierazpen egileak lauki hau markatuz adierazten du zehaztutako nazionalitateaz gain ez duela Ameriketako Estatu Batuetako nazionalitatea

DATA ETA SINADURA	Adierazpen egileak bere gain hartzen du alde aurretik adierazpen egileak inguruabarretan izan litezkeen aldaketak jakinarazteko beharra.	
	Data: (e)ko aren (a)	
	Ordezkarria:	Adierazpen egilearen edo haren ordezkariaren sinadura.
	IFZ:	
Deiturak eta izena edo sozietatearen izena:		

Adierazpen honek balio mugagabea izango du, baldin eta jakinarazitako datuetan aldaketarik ez badago. Aldaketaren bat badago, beste adierazpen bat aurkeztu du, izandako aldaketak jasoko dituen.

Adierazpen honetan ageri diren datuak egiaztatzeko eskatu ahal izango dio zerga administrazioak adierazpen egileari. Eskatu ahal izango dio, halaber, erantzukizuna, egiaztatuz gero jakinarazitako datuak gezurra direla.

RE 16/276